

## *Juan Ezenarro Barrenetxea*

*Zarautz,  
Gipuzkoa  
(1911-2013)*

Aurkibidea

**Biografia**



Elgoibarren jaio zen, baina bederatzi urterekin etorri zen Zarautzera familiarekin. Gaztetan EGiko kide izan zen: EAJn jardun zuen lehenik, eta EAn gero. Batzokiarekin (alkartetxea orain) oso lotua. Gerra garaian bost urte inguru eman zituen Zarautzik kanpo, frontean, Agirre lehendakariarentzat ertzain, eta kartzelan.

# Zintak

## ZAR-005

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen
- **Data:** 2004-11-30
- **Iraupena:** 95 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

## Pasarteak

### 1. Biografia; jatorria

- **Erref:** ZAR-005/002
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:00:30. **Bukatu:** 00:02:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

#### Laburpena:

1911an jaio zen Elgoibarren eta 11 urterekin familia Zarutzera etorri zen aita hil ostean. Lehenbizi anaia etorri zen arotzeria ikastera. Familia lehenbizi Azpeitira joan zen bizitzera eta gero Zarutzera. Eskolan non ibili zen.

### 2. Eskolan dena erdaraz

- **Erref:** ZAR-005/004
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:03:46. **Bukatu:** 00:04:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera

#### Laburpena:

Piper egiten zuten eskolatik. 300 lagunetik gora ibili ziren batera. Serafin Cuadrado zen irakaslea. Erdaraz ematen zuen dena. 13 urterekin Arrutinean sartu zen lanean.

### 3. Loiola batailoian ibili zeneko kontuak

- **Erref:** ZAR-005/005
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:04:58. **Bukatu:** 00:07:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

#### Laburpena:

Gerran, "Loiola" batailoian ibili zen. Buruak "ertzain" lanak egiteko izendatu

zituen zenbait lagun. 4 konpainia zeuden eta bat mendian egoten zen. Bonbardaketa baten inguruko kontuak.

#### 4. Nondik nora ibili zen gerran; Bilbo ingurua

- **Erref:** ZAR-005/006
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:07:24. **Bukatu:** 00:10:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Borroka](#)

##### Laburpena:

Nondik nora ibili zen gerran. Behin Camsara bidali zituzten Santurtzira gasolinatara Santanderrera eramateko. Bilbo hartu zuteneko kontuak. Gorriek Zubiri familia harrapatu nahi zuten, eta txaletak erre zituzten. Anarkisten konpainiak.

#### 5. Nondik nora ibili zen gerran; italiarrekin zuten harremana

- **Erref:** ZAR-005/007
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:10:49. **Bukatu:** 00:12:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Borroka](#)

##### Laburpena:

Italiarrak etorri zireneko kontuak. Sarjentu batek pistola aldatu nahi izan zion bere errebolberraren truke. Santurtzitik pasatzen ari zirela guardia zibilek harrapatu zituzten. Botak eta bestelakoak baserritar bati eman zizkion.

#### 6. Nondik nora ibili zen gerran; Gasteiz, Murgia

- **Erref:** ZAR-005/008
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:12:45. **Bukatu:** 00:17:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Ihes egin beharra](#)

##### Laburpena:

Gasteizera joan ziren. Lagun batek andregai eta arreba zeuzkan "Hotel Fronton"en eta bisitatu egin zituzten. Handik Murgiara joan ziren. Bertako komentuan apaizak eman zien sermoia. Diru apur bat bazuen eta ogia eta sardinak jan zituen. Lurrean lo egiten zuten ilaran jarrita.

#### 7. Gerran harrapatu ostean 12 urteko kartzela-zigorra

- **Erref:** ZAR-005/009
- **Iraupena:** 0:06:18. **Hasi:** 00:17:15. **Bukatu:** 00:23:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Errepresioa](#)

**Laburpena:**

Murgian, jendea aukeratu eta sakabanatu egin zituzten. Bera Gasteizera bidali zuten. Geroago, Bilbon egon zen. Epaiaketak hasi ziren. Gizon bati heriotza-zigorra eman zioten euskalduna zela esatearren. Berak espainiarra zela esan behar izan zuen; eta, hala ere, 12 urte eta egun bat eman zizkioten.

**8. Astorgan preso egon zeneko kontuak**

- **Erref:** ZAR-005/010
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:23:33. **Bukatu:** 00:26:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Errepresioa](#)

**Laburpena:**

Astorgara bidali zuten kontzentrazio-esparru gisako batera. 5.000 lagun bildu ziren bertan. 13 gradu zero azpitik izaten zituzten eta arropa askorik ez. Kapilau ona tokatu zitzairen eta, denentzako koltxoirik ez zegoenez, lastoa eraman zien. Gero, ganadua eramateko, bagoi batzuetan Madrilera eraman zituzten "obreros seleccionados" zirela eta.

**9. Alcalá de Henaresera lanera eraman zituzteneko kontuak**

- **Erref:** ZAR-005/011
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:26:55. **Bukatu:** 00:29:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Errepresioa](#)

**Laburpena:**

Madrilera eraman zituzteneko kontuak. Alcalá de Henaresen gazteentzat kartzela zegoen eta tailerrak. Nahastuta, penalean sartu ziren eta presoak balira bezala tratatu zituzten.

**10. Alcalá de Henareseko lanak: karabelak egitea**

- **Erref:** ZAR-005/013
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:31:15. **Bukatu:** 00:32:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Errepresioa](#)

**Laburpena:**

Bera tapizgile lanetan jarri zuten. Zer lan egiten zituzten Alcalan. Gerora, karabelak egiten jarri zituzten. Lehenbiziko egin zuten karabela Francoentzako oparia izan zen.

## 11. Euskaldunen arteko harremana

- **Erref:** ZAR-005/014
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:32:54. **Bukatu:** 00:34:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

### Laburpena:

Euskaldunak elkartu egiten ziren elkarri laguntzeko, ideologia desberdinetakoak izan arren.

#### Transkripzioa

- Guk beti iten gendun [...] in deu, euskaldanok juntatu ta politikaik gabe, gaiñea. Zarautzen zeona komunista zan, bestia anarkista zan, ta alkarrekin ibiltzen giñan. Jose Mari [...], Zacarías ta... Eta, guk eiten gendun, batek oliyua ekartzen, bialtzen ziyoen, beste batzuk beste zerbait, eta beste batek, juntatu, ta kozinerua, euskalduna bat, danak euskaldunak zian. Ofizinatan 'e euskaldunak. Gu giñan aurrenak eaman giñuztenak eta, geo kargo danak geuk hartu in genduzen. Eta iten genduan gauzak eta geo partitu gabian. Ta, pentsau deu, zeoze [...]: hiru anaia zaben monitoriak, nausiyak, Madriko ebanistei on bateko semiak, baiña goitik behera jundakuak. Ta haitako bat ibiltzen zan, ta gabian ta etortzen zanian eman ta iten [...], ta lotsatu iten zan hartzia, ta "hartu zak gizona gauza berua!". Ta hartu eiten zun. Hartutzen zun ta: "llevamos seis meses sin cobrar ni chiquita". Ta, horrela pasa zan ha. Beno, ta hor badao... Jesus!

## 12. Eusko Gaztedia; batzokiaren historia

- **Erref:** ZAR-005/015
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:34:20. **Bukatu:** 00:37:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

### Laburpena:

Eusko Gaztediarekin ibiltzen zen gerra aurretik. Batzokiaren historia. Jostundegia zegoen lehen. Gerora hamabi mila duroan erosi zuten eraikina. Gerra garaian falangistek espropiatu egin zuten eta geroago eraikina bota egin behar izan zuten.

#### Transkripzioa

- Eta gerra aurretik orduan, gerra hasi aurretik, esan dezu Eusko Gaztedin, Eusko Gaztediyakin ibiltzen ziñala hemen Zarautzen.  
- Bai, Zarautzen, bai, Batzokiyan, hortxe.  
- Nun, nun, nun, nun zeon?  
- Bai, hamentxe dao Batzokiya.  
- Hemengo batzokiya, baiña...  
- Hor hauzkaldetik ikusten dezu hutsik nola dao, ba? Hor itxe eder bat zan hor. Sastre Izetan etxia zan hori, sastraiyakin ta danakin. Ta gizajuak, [...] zun batian, saldu in zuen zea, hori. Hori jutun zan Parisea, modak ikustea. Eta handikan etortzen zan bakoitzian... Azienda haundiya zan. Horrek 'e

txaletak eta terrenuak eta hauzkaldea, beti ere pieza bat saltzen zun, pieza bat, pieza bat. Ta gertau zanian debatian, Azpiazu ta Arrutitarrak eta hoiek, hamabi milla duruan etxia ta hauzkaldeño saltzia, beak. Baiña behar zitun hamabi milla duro, "sesenta mil pesetas", egun hartan. Ta, hor, [Comino] Arruti ta, Manuel ta, Batista ta, Lizundia ta, este... Asporosa ta, Arruti ta, ba, "bai, hori bai [...] bankuak irikita ta badao diru hori, sortuko genduke", fabrikantiak zian danak eta. Baiña igandian, eguardiya, zeñek euki behar du diru hori? Ta gertau zan Erramun Arruti, haren semiak 'e segitzen du, bizi zan han, Azpiazuneko etxian. Ta, Asporosa, bestia, koñau haren arrebakin, Bilbotarra, ta harek esan zun "hemen bazakiyat diru hori nun dauan, honenbeste baiño gehio", ta, "nola?", ta, zakan osaba etxian, Ameriketatik etorrira, ta oindik dirua bankoa eaman gabe. Ta hartu dirua, ta eman ziyoen hamabi milla duro zeai, Izetai, in zuen papela, ta geo, astelehenian, asteartian ya eskriturak, eta holaxe eosi zan hori, hamabi milla duruan. Ta geo gerra...

- Diru asko garai hortako, ez?

- Gerra etorri zanian hor falangiak espropiatu ziun hori, falangistak. Ta, ba, abandonatu ta. Alboko etxia esaten due, alboko etxiak teilla falta baldin bazuen, handik kendu. Handikan kendu, ta geo azkenian berriz jabe in geanien, bota in behar izan deu, ustelduta zeon ta dana. Ta hortxe, batzokiya horrea ekarrira gendukan, gerra hasteako.

### 13. Delegatu gisa aritu zen Eusko Gaztedian

- **Erref:** ZAR-005/016
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:37:23. **Bukatu:** 00:39:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

#### Laburpena:

Eusko Gaztedian nortzuk ibiltzen ziren. Bera delegatu moduan ibiltzen zen. Korrikalari eta pilotari onak zituzten.

#### Transkripzioa

- Zein ziñaten Eusko Gaztediyan ibiltzen ziñatenak? Zu ta zein gehio? Gogoatzen al dituzu hoi en izenak?

- Jesus! Eusko Gaztediyan ibiltzen giñanak...

- Hola, zarauztarrak...

- Ba, jakin zazu, pelotai bezela ibiltzen zian hamen Iruretagoiena, Kukulunekua o esaten diyoe, horren aita, bestia, harrek 'e Xaguanekua, bestia San Pelaion 'e zea, Aizpurua, Kaxkaxoenekua. Eta ni ibiltzen nitzan delegau. Geo korrikaian berriz, Unzueta ta, Unzueta, geo Arrua txikiya, Sasi, esto... Beste korrikaiak, korrikaiak onak, e! Guk Irundikan Donostiako, Behobia-San Sebastian hori, rekorra jarri gendun. Ta orduan gendukan Unzuetak, baita zean 'e, Campeonato de Españan 'e irabazi zun. Ta, ekipo ona! Ta zeak 'e bai, este pelotaiak 'e bai, ondo. Pelotaiak 'e distritokua, zarauztarrak irabazi zuen. Irabazi zuen zestuarrak, Barrena anaiak eta haiek 'e tranpa pixkat ta in ziguen Azpeitiyan, frontoi txikiya, haundiya [...], eta [...] zan, eta haundiyan ikusi zuen. Guk gendun hau, Kuku, Iruretagoiena, ta Arregi ta habek jotzailliak, hoiek 'e galdu in [...]. Ta frontoi txikiyan sartu zigun, ta haren boleaka, galdu in gendun partidua. Jotzen zuen pelota, ta asko jotzen bazuen, kaleaiño. Kalia, ta [...] atzian, Azkoitiko... Eta geo, horreatik, finala jokatzeko ein zian haiek suplente

ibiltzen zuen Arregi, e, Agirre, Aizarnakua. Ta Arregi, Zarauzko Xagua, aureale guk, bi hoiek jokatu zuen. Olaizola anaiak 'e kontra zean, Errentean, batzokiko zean, frontoian. Ta neu jun nitzan delegau, ta juez. Ta irabazi in gendun.

#### 14. Anaia Afrikan soldadu zegoela hil zitzaion

- **Erref:** ZAR-005/018
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:40:32. **Bukatu:** 00:42:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Dantza

##### Laburpena:

Bera ezpata-dantzari gisa ere ibili zen, baina anaiaren lutoagatik utzi zuen. Anaia Afrikan soldadu zegoela hil zen peritonitisarekin. Ezaguna zen herrian eta marmolezko panteoia egin zioten.

#### 15. Zarauzko Euskal jaiaren antzinatasuna

- **Erref:** ZAR-005/019
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:42:50. **Bukatu:** 00:44:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

##### Laburpena:

<p>Orduko Euskal Jaiak sanoagoak izaten ziren, baina aristokratek asko edaten zuten. Bere ama gazte zela Elgoibartik oinez joan zen Zarautzeraino neska kuadrilla batekin.</p>

#### 16. Futbol partidu baten inguruko kontuak

- **Erref:** ZAR-005/021
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:46:39. **Bukatu:** 00:48:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

##### Laburpena:

Behin futbol partidu garrantzitsua zuten zarauztarrek Bergararen kontra. Denak meza goiz amaitzeko zain, baina apaizak luzatu egiten zuen meza jendea zegoenean. Aritzbatalde futbol zelaia non zegoen. Azkenean suspenditu egin zen partidua. Futbol taldearen jantzia.

##### Transkripzioa

- Nik gogoratzen det beste batian, kristo-erregen egunian zan, ointxe pasa da. Ta orduan, joe, danak juten giñan "en punta en blanco" danok eta. Arratsaldian zeara, bezpereta, ta bezpereta jun. Ta zan, Zarautzak jokatzin

zun Bergaratarran kontra fuboleko partidua, ta oso garrantzitsua zan. Eta, Don Fernandoi esan giñun, "bezpereta etorriko gea, baiño fubolea jun behar deu, e!", ta ondo iñ ezkeo nahiko denboa zeon, baiño... Parrokua zea zan, Don Meliton Pagola, ta hura hitza hartzen zuenian, ta hola jendia beteta, ez zuen bukatzen. Ta Don Fernandok ordun "nik konponduko det hori", gu danok zeara, fubolea juteko. Ta, efetibamente, jarri gea ta, kristo gure errege kantatu ta, bestiak segi iten zun, ta Don Fernandok 'e "kristo gure errege", benga, benga ta benga, ta bestiak "hi, baiña [...]", danok kalea! Ta saltaka, zeara, aizu, fuboleko kanpoa. Ta euriya, haura zan euriya itia!

- Nun zan fubola? Fuboleko kanpua nun zeon?

- Arizbatalde! Oain, e, nola dao, ba, zea, anbulatoiu, ta? Hortxe, hortxe zeon kanpua, Arizbatalde. Ta hura iten 'e parte hartu gendun. Eta haraxe. Ta lau ta hutsa o, lau ta bat eo hola zarauztarrak irabazten. Ta euriya benga ta benga. [...] beteko ura altxa zan zea, esate bateako fuboleko kanpua, eta oaindikan hogei bat minutu falta ziala, biyak jarri zian deakuerto ta suspenditu.

- Baiña, zarauztarrak irabazi!

- E?

- Zarauztarrak irabazi!

- Bai, lau ta [...]. Irabazten zaben, ta esan zuen, bale, bale, bale...

- Eta, jantzin bat ba al zekaen? Kamixetaen bat eo zarauztarrak, o? Danak...

- Bai, igualak, bai. Kamixeta eta ondo, botak eta ondo, ondo.

- Bai, e?

- Bai, bai, bai. Erregaluan eunen uniformia, galtza beltzak eta kamixeta zuriya, ta botak eta. Hor ez, hor ez zeon zeaik 'e...

## 17. Mandaska futbol taldea

- **Erref:** ZAR-005/022
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:48:58. **Bukatu:** 00:49:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- Aisia » Kirola » Futbola

### Laburpena:

<p>Bera ere ibili zen futbolean. Mando aska bat zegoen inguruan jokatzen zuten futbolean eta taldeari "Mandaska" deitzen zioten. Berari bizikletan ibiltzea gustatzen zitzaion.</p>

### Transkripzioa

- Ta zu, fubolian zu ibili ziñan? Zu ibili ziñan futbolian?

- Gu, ibili nintzan fubolian, bai, baiño txarra nitzan. Zean, hemen, soziedadia, zea bat euki gendun, barriyokua. Mixeikordiko aurrian, hor uain biblioteka o etxe bat badao han... horren onduan, atzia zan basarriya, Kirkillanekua. Ta aurria zan Mandaska. Ta manduak eta orduan ba al dakizu, zalduyak eta kamiyotan, haiek ura erateko aska bat zeon, urakin. Ta gu irten giñan Mandaskakuak ekipua. Mandaska bai giñan. Eta kostan 'e asko jokatzen gendun fubolian 'e, baiña nei bizikleta gustatzen zitzaiten, ta ni bizikleta. En tres años, hiru urtian bi ostu, ointxe.

## 18. Gerra aurreko sendagileak

- **Erref:** ZAR-005/024
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:50:30. **Bukatu:** 00:52:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

### Laburpena:

1944an jarri zuten seguritate soziala. Medikuren bisita bost pezeta inguru ordaintzen zen. Gerra aurreko sendagileak: don Pako Agirresarobe, Goñi, don Leandro.. Lanean hasi zirenean bazuten medikua.

### Transkripzioa

- Orduan, berrogeita laurian seguridade soziala?  
- Berroita lau. Zeak jarri zun, Quironek, [falangista 're], Francon [pistoleruak 'e]. Meikuak oain bezela ez, oaingo anbulantziyakin, ta bueno... Nik...  
- Gaixotu ezkeo 're, meikuana jun, hainbeste ez zitzaion kaso ingo?  
- E?  
- Zuek umek ziñatenian, umiak ziñatenian, hainbeste kaso in ere ez? Zeoze izan ezkeo...  
- Ez, ez. Orduan, ni gaztia nitzanian ta, meiko bat [...] zan, bixita. Bost pezta o ez dakit ze izaten zan, usten det, ta, ba, hori.  
- Etxea etorriko zian, ez?  
- E?  
- Etxea etorriko zian?  
- Bai, ba, etxea. Ordun meikua etxea.  
- Zein zan meikua? Gogoratzen zea?  
- A, orduan zian, gure denboan zan, e, zea, Don Paco Agirresarobe, kantantian anaia, zea, bestia Goñi. Geo, Don Elandro, Don Candido. Ta geo Uranga ta, geo bestiak etorri dia, baiña orduan, orduan Don Paco, Don Leandro, ta Don Candido. Don Candidok meikutza laga in zun meikua izanagatik. Alkate jarri zanian, meikutza laga in zun. Ta anaiak segitzen zuen. Ta gure, gerra aurretik meikuak zian Goñi, Don Paco, Don Leandro,... Don Paco, Goñi, Don Leandro... hiru hoitxek izango zian. Geo etorritakuak dia bestiak, beste, Uranga ta haiek 'e, geokuak dia. Geo, Rubio ta... Baiño lanian hasi giñanian, bagendukan zea, meikua, Pakea o soziyuen, han afiliatuta zeuen enpresak meikua zaken. Ta handikan izan nun nik Rubio [...], ta harekin jaio zan familiya.

## 19. Euskaraz/erdaraz nork hitz egiten zuen

- **Erref:** ZAR-005/025
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:52:55. **Bukatu:** 00:54:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

### Laburpena:

<p>Zarautzen beti hitz egin izan da euskaraz. Esaera: "bi gona juntatuz gero

erdaraz". Asko abesten zen bai sagardotegietan eta bai bestela. Emakumeak leihoak irekita entzuten egoten ziren.</p>

## 20. Sagardotegiak non zeuden

- **Erref:** ZAR-005/026
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:54:36. **Bukatu:** 00:56:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

### Laburpena:

9 sagardotegi ezagutu ditu irekita Zarautzen. Non zeuden. Ardorik ez zuten edaten, beti sagardoa.

## 21. Sagardotegietako janaria

- **Erref:** ZAR-005/027
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:56:42. **Bukatu:** 00:59:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

### Laburpena:

<p>Jan ere ondo egiten zen sagardotegietan, batez ere txitxarroa, arraina merke zegoen-eta. Emakumeak ez ziren tabernetan sartzen.</p>

## 22. Kuadrillako giroa; igandetako denbora-pasak

- **Erref:** ZAR-005/028
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:59:10. **Bukatu:** 01:01:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Aisia » Kultura » Zinema
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

### Laburpena:

<p>Gerra garaian gosea pasatu zuten. Igandetan denak trajearekin janzten ziren. Txaketa poltsikoak kakahuetez bete eta zinera joaten ziren. Gerora estraperloa hasi zen. Neska kontuekin hasi zirenekoa. Kuadrillan ezkontzen zenari bazkaria ordaintzen zioten</p>

## 23. Ezkontzen zenari arrea nola egiten zitzaion

- **Erref:** ZAR-005/029
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:01:43. **Bukatu:** 01:03:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

**Laburpena:**

Trinidad egunean ezagutu zuen emaztea. Ezkontzen zenari arrea nola egiten zitzaion. Altzariak egiten zitzaizkien ezkontuei. Gero pregoiak egoten ziren.

**24. Alcalá de Henareseko burua hil zeneko kontuak**

- **Erref:** ZAR-005/030
- **Iraupena:** 0:05:51. **Hasi:** 01:03:29. **Bukatu:** 01:09:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

**Laburpena:**

Gerratik itzultzean, Zarautz aldatuta ikusi zuen. Alcala de Henaresen jesuita bat zuten buru, ingeniaria. Burua hil zenean, hainbat euskaldun eraman zituzten autobusez hiletetara Madrilera.

**25. Aske utzi zuteneko kontuak**

- **Erref:** ZAR-005/031
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 01:09:20. **Bukatu:** 01:12:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Politika eta Franco

**Laburpena:**

Gipuzkoako Eusko langileetako nagusia zegoen Madrilen eta hark esaten zien miloi bat preso euskaldun zeudela. Epaiketen ostean, igandero GUardia Zibiletan aurkeztu behar zen eta kanpora ezin zen atera. Bi urte egin zituen horrela. Gero libre utzi zuten.

**26. Herrira itzultzean tapizero lanetan aritu zen**

- **Erref:** ZAR-005/033
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 01:13:49. **Bukatu:** 01:14:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

**Laburpena:**

Zarautzera itzuli zenean tapizero ibili zen. Lehenbizi Arrutinean aritu zen lanean. Bera etxera iristerako bere lehengo nagusia bere zain zeukan etxean.

## 27. Gerraosteko pizkundera industrian

- **Erref:** ZAR-005/034
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:14:50. **Bukatu:** 01:17:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

### Laburpena:

Industria sortzen zegoen bera herrira itzuli zenean: textilak hiru-lau, jostailu-denda, Arrutinekoa, Alfa... Arrutinetik erretiratu zen lehenbiziko gizona. Arrutinean "Eguzki" altzariak egiten ziren. Bi herritarrek denuntzia jarri zuten erretiratutako gizona lanean zebilelako.

## 28. 1932 inguruko industriako krisia

- **Erref:** ZAR-005/035
- **Iraupena:** 0:05:16. **Hasi:** 01:17:16. **Bukatu:** 01:22:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarreneko lantegiak

### Laburpena:

1932 inguruan krisia egon zen industrian eta 3 egunetan jarri zituzten lanean. Altzariak egiten zituzten baina ez ziren saltzen. Gero pixkanaka egoera hobetuz joan zen. Herriko jendeari lana ematearren egin ziren herri-lanak.

## 29. Herri bakoitzaren izaera

- **Erref:** ZAR-005/038
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:26:43. **Bukatu:** 01:27:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

### Laburpena:

Zarauztarrek nolako fama zuten. Zumaiarrak kantuan onak, baina bereziak omen ziren. Getariarrak. Ze auzotan ibiltzen ziren erromerietan.

### Transkripzioa

- Ta hola, e, inguruko herrita ta juten ziñatenian, zarauztarrak fama ona al zekaen zarauztarrak?
- Erromeitan.
- Erromeian.
- Gu, erromeitan.
- Ta, zarauztarrak fama ona al zaken? Hola... o ze fama zeken orduan

zarauztarrak?

- Ez, Zarautza herri ona zan, konjuntuan herri ona zan, [...]. Zumaiarrak zian espezialak. Kantuan onak, jolin! Getaiarrak 'e bai, baiña ba, Getaiarrak 'e beti azaltzan zan balia zala, ez zala, bazala... ta hasarratu ta. Geo politika sortu zanian bukatu zan balia. Zarautzan jende ona zeon.

- Ta nun ibiltzen zifñaten erromeian?

- Jesus! Barriyo guztitan. Hasi hor zean, Santa Krutzen ta, Elkanon ta, zean, ta hamen, beno, barriyuak, Urdaneta ta, Altzola ta, danak, danea. Geo, bizikletan 'e toki daneta aillatzen giñan. Orduan 'e ez zan, herriyan eongo zian ba, sei bat eo zortzi bat automobil besteik ez zian orduan. Ta gu bizikletan jo ta ke, geo motorrak [...].

### 30. Ezkioko Ama Birjina ikustera joan zireneko kontuak

- **Erref:** ZAR-005/039
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 01:27:54. **Bukatu:** 01:30:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

#### Laburpena:

<p>Ezkioko Ama Birjinaren inguruko kontuak. Ama Birjina agertuko zela egun hartan eta tailerrean jai hartuta Ezkiora joan ziren bizikletan.</p>

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-04-14*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com